

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**1/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15ekoa, 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko**

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2025eko urtarrilaren 15eko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "1/2025 Foru Araua, urtarrilaren 15ekoa, 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 27koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 15a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

### **1/2025 FORU ARAUA, URTARRILAREN 15EKOA, 3/2024 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, ABENDUAREN 27KOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPENA EMATEKO ZERGA OSAGARRI BATEN APLIKAZIOA, TALDE MULTINAZIONALEI ETA TALDE NAZIONAL HANDIEI GUTXIENEO ZERGAPETZE MAILA GLOBALA BERMATZEKO**

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abenduaren 27ko 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da abenduaren 27ko 3/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 15a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*